

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKALERRIAN BARNA

«Mattin» bertsolariaren omenaldia Donostian

Joan berri den Iganbean, Urtilaren amasegarrean, Donostian «Astoria» Teatron Franziar aldeko Euskal Herriko bertsolari jator den «Mattin» erri bertako «Centro de Atracción y Turismo» delakoak omenaldi eder bat eskeindu zion.

Teatroa murraraino bete zegoen bertsozaleek Ahetzeko seme zorrotz eta alalari bere txalo eta agurrak eman beharrez.

Omenaldi hontan Euskal Herriko bertsolari famatu guztiak bildu ziran denek «Mattin» erri bere bertsoak botatzeko prest.

Han egon zirenak: Uztapide, Lizaro, Agirre, Lazkano, Lazkao Txiki, Garmendia, Mitxelena eta Gorrotxategi Gipuzkoaren partetik. Xalbador, Arozamena eta Lasarte, Nafarro osoren aldetik, eta Lopategi eta Azpillaga Bizkaital aldetik.

Festaldiak esito handia izan zuten, eta dena ongi ateratzen ere.

Gal emaldea «Loiola» Irratiko gizon trebe den Jose Maria Iriondo izan zen.

Ondorean Donostiako «Urbia» Jabetxean ohorezko Bazkaria ospatu zuten.

Zorionak «Mattin» biotzez.

«Euskal Hit Parade», ren herriak

«Euskal Hit Parade» delakoa honako moduan azkenean gertatu da:

Lehenbizikoa: «Gaur erdian soina», «Unai» Iruko kantatu duena.

Bigarrena: «Txori Txikiak», «Oskari» taldeak abestia.

Hirugarrena: «Gure bide guztiak», Benito Lertxundi kantatu duena.

Laugarrena: «Hura», Antxon Valverdearena.

Bostgarrena: «Soro batean lorea», «Erlak» taldeak kantatu duena.

Selgarrena: «Zu euskaldun be-

ria», «Araba» Irukoak kantatu duena.

Zazpigarrena: «Iturri goi Arotza», Mikel Laboarena.

Zortzigarrena: «Nere Herria», Lourdes Iriondoarena.

Bederatzigarrena: «Zure begiek», Mikel Laboarena.

Amargarrena: «Nun dan nekazaria», Xabier Madinarena.

Denak, batez ere aurrean gelditu zirenak elkarri puntu gutxietao tartekak izanik, igualteu zeuden, azkenik «Gaur Erdian Soina», «Unai» Irukoak kantatzen duena, txapeluna geratu da.

Euskarazko liburuak

1971 garren urtean argitaratu diren euskarazko liburuak, Eiba-

reko Yon San Martin jaunak dionez, 49 izan dira. Batez ere bat Abenduaren erditik azkeneko argitaratua emana izan ba da azkenean euskal liburuak asteen bat gutxi gorabera argitaratu dira.

Euskerazko liburu apargarrie netan nere iritziz hauek dira: Hitz berdeak Joak Azumendi'arena. Langileak historian zehar, Mikel Ugalderearena. Euskal Literaturaren Historia, Ibon Sarasola'arena. Euskal Herriaren Historia (lehen tomoa oraino ez bakarrik argitaratua da, beste bi argitaratzekotan daude. Erderrara ere argitaratzen da), Federico Zabala'arena.

Aurretazko liburuetan badira

batzuk irakurgarriak direnak: Animalien bizitza, Itxasoako Indioak, eta Balaeren Arrantzak. Aspaldin argitaratuak ziretan badira loan berri urtean berri ere batzuk argitaratu emanak euskaldunak ezagutu ditzen: Atsotitzak eta Neurutzak Arnaut Oihenarte zenaren (Lehenbizikoz 1957 urtean argitua), eta Eskaldunak, J. M. Hiribarren'arena.

Euskal liburuak irakurleak ugaritzen doaztik beharretan daude. Gero ta irakurle gehiago izaten bada ere saildik euskerazko liburuak salmenta handiagoa izan behar dute. Salgai dira gure liburu-dendetan.

IKUSLE

GURE AMA LURRA

LEITZA BERRIA TA PATXIARRAZOLA



LEITZAKO IKASTOLA


Gaur Leitzaoko erriak, 2.325 biztanle ditu. Lenagoko aberastasun berriak erantsi dizkiete. Azkeneko amar urte aurretik ere bat aldatu zaigu. Industria giroan sartu da zearo. Ba ditu, olategi onenetakoa, bigarren malleko ikastetxeak, liburutegi, jan gela ta bitlokiak ezin obek. Nafarro

osoin Leitzaari gauza arrigarri bati bezela begiratzen diote.

Erri au zerbait ba da, Patxi Arrazolari zor dio. Eskertua bertako legoke. Gipuzkoar gizon argi ta trebe au, euskalzaletz purrekua genduan. Leitza ezagutu ezkerotik maitatu zuna benetan.

Orain dela 15 urte ari ziran Leitza, erriaren etorkizunari begiratuaz, gora berak jaltzen. Lana biderik etzegon bertan ta gazte guztiak ba zijoazten alde. Orre la, erria indarra galitzen zijoan. Ordungo alkatea Fermin Lizarraga, Nikolas Buldain errotore Jaungoana bere kezka oiek agertzen joan zan. Lantegut berri batera irerira egin bearko zitzaiolekoen gelditu ziran. Ortarako lurak eskeñi bear, baita argia ta ura. Papeiera bat egiteko asmoakin aurreratu zan Patxi Arrazola. Urangaren papeleleratik zetoren, barria egitera. Eun langille artu zituan asieran. Joan dan urtean 1970'an ij danean, 1.140 langille lanean ari ziran. Nortasun aundiko gizon onek ba zituan asmo ugari, baita aurrera ateratzeko gogoia. Bere asmoak etziran nolainakoa, kemena ere izugarriz, etzan etxean gelditzeko joia. Gizon aurrerakola genduan. Buruan bi gauza sartu zitzaizkien barreraino: lendaizki lantokiak sortu bear zitula euskaldunen tzat, gero gazteak ezi egin bear zirala. Asmo oiek betetzeko, bi laguntzale azkarrak eta trebek erkitu zituan; Papeiera lantegia zabaltzeko Patxi Nabal ingeniero gaztea ta bear ziran ikastetxeak egiteko Jose Manuel Lasart e apaiza langillea.

Papelelan lana egiteko nelago zituan euskaldunak kanpotarrak baino Berak zionez: «Atsegiñago Zitzaiola euskaldun jator bat eraldun onena baino». Bere euskaldun langillen bila egunero autobusak jartzen zituan, Elizondo, Atallo ta Goizuetaraino, gaur oraindik dijoaztenak. Orre la zen bat bidetako gizeasemi ematen dieten ogia. Erria, arrotzekin, tzuu naustu nai. Erri bertan eroso, garbi ta buxun jan dezaten eta alkarrekin egon, OIALDE jantoki ederra osatu zuan. Langilleentzat etxeak egiten sailatu zan. Ibaia garbi ta buxun oiek arren ez du zirikiri ustutzen. Ango



LEITZAKO ENPARANTZA



NEKAZARI ESKOLA

ibaletan ez dago usai txarrik, ikus ten danez euskal gizonak eta gure amalurra maite zituan.

Gazten eta erriaren aurrerapeneri begiratuaz, eziera idurtzen zitzaion bearezkoa. Urrutira ikusitzen zuan eta berretzat izan baitz bezela jokaten zan. Asmo oiek aurrera ateratzeko berriz, parrokia, aintzamentua ta papeiera alkatu zituan. Erriaren gizeasemi jator batzuek ba zituzten beren ondasunak parrokian emanak, errian arkitzen ziran bearrak betetzeko. Aintzamentuak lurak ere jarri zituan. Danen artean gazten ezikerari begiratuaz Patronato AMAZABAL sortu auten. Etzan ain errexa izan. Batzuei erri onan ikastetxeak etzitzazkien epliki, nalago zuten frontoi bat egiten milioiak ondutu.

Industri bizibideko ikastetxea edo eskola profesionala egin dute. Bost urte dira iriki dela. 67 mutil daude ikasten. Iru urte igarota ofiziala egiten dute bertan. Ilabetero ikasketak 50 pezetan kostatzen zaie. Jan ta lo egunero egiten dutenak berriz 1.500 pezetan ilabetean; autetik gela nek beak dituzte. Baserritarrik min zitun Patxi Arrazolak. Bere asmoetik jaita, egin dut Leitza Nafarroko nekazari eskola bakarra. 40 mutil dabilta ikasten. Ez dute pezetan bat bakarrik erordintzen. Orain dela bost urte irikia dago. Mutillak ezi ilabeteko ikasketak egiten dituzte urtero.

Iragarren urtea daramak aurrer euskal ikastolak. 84 ur dijoazte. Ilero 50 pezetan ordaintzen dituzte gurasok. Bost andereoiok laguntzen diete. Bost oietatik Iru leitzaari ditugu, gainera ba daude erriak kanpora beste bost erakosten. Nafarroko euskal erri jator onek andereoiok exportatzen ditu.

Gaur ikastola bete bete dago. Ura bai gauza polita. Gu sarzeraoan Jose Fermin dantzan la sai asko zebillen.

Leitza zeuden monjak joan dira eta aiek utzitako ikastetxe zarrak moidatzekotan dabilzt an-

txe ikastola zabaltzeko. Ez da berri txarra.

Inguuruetako 400 sur guztiak eskola berri batuetan bitzen dituzte. Egiardiko janaria ta autobusentzat bost pezetan ordaintzen dituzte bakoitzak.

Erriko enparantza onduan antolatuta dute tokia nai dutenak lenengo malleko batxilerratu egiteko. Gaztetxo mordoak ba ta dijoazkie ikastera.

Liburutegi eder bat egin dute ta arratsaldero irikitzen da. Erdal eta euskal liburu ta aldizkariak irakurri di tzakete.

Joseba Barriola erakaste jatorrak asteen bi aldiz egiten du euskal alfabetatzea. Uste dut gainera txistua jotzen erakusteko asmotan dabilera. Liburutegiko zaindaria da bere arreba.

Nekazari gaik aurreraztearren bei kooperatiba bat egin du gure Patxi Arrazolak. Ikusi bear dira angotz tresnak, garbitasuna ta beial. Ajeak erakustera poez ze ramazkin bere adiskideak.

Leitzaoko gizeasemeak dute zoria. Ori dana Patxi Arrazolaren emaitza da. Eskertu egin ditzeke. Jakina orrelako gizonak ez dira errexak eta danak ezin zuten ontzat artu. Nai ta naiez gauzak aurrera eramatearren erabakiak artu bear dira eta neurri batzuek ez dira danen gustokoak.

Patxi Arrazola gi puzkoar gizon jator oneri, lege gizona ta zortzi seme alaben aita genduan, giazak nai zituan beaiea etzitzazkiolako ateratzen biotza lertu ta 1970'ko egurratzen 54 urtekin il egin zaigu. Leitzaoko etorkizuna be r biza kosta zaito. Jator jokatzen ez da errexa gizeate onan.

Orain AMAZABAL patronatu Nafarroko diputazioak artu du bere gain.

Nere iritziz ezaldu ditut Leizadunen gauza ederretenakoa ta ba daude ugari. Baina arkitzen ditut usune batzuek ezin ditunak bildu. Lenego kezka ur-bainismoari buruz jaltzen zait.

Leitza zarrak ba dauka jatorrasun ta edertasun aundiak. Erri onduan dauden etxe guztiengatik ezin dezaket gauza berria esan. Katolik dirudi ez bizitzak. Ez dezatela Errederi edo Pasai baten antzera Leitza bihurtu. Egingoak ortzen gelditzen dira. Erriaren zabaltzeaz berriz bear da urbanismo lana bat egin. Ez askatasun osoa eman etzegillei. Oietatik asko estetika aldetik ezjakintu batzuek dira. Batzuentzat dirua bakarrik txapelidun. Amazabal auzoko bear du apaizketa jator bat. Bartzertuta dagon buruzko Gurutzta eder arek bear luke toki berexi bat.

Bigarren kezka nekazari eskolar buruz daukat. Nola leike egin euskal eskola bat ikullurrik ta cororrik gabe? Ori etzait buruan sartzen. Nekazari gaik ez dira teori gaia utsak.

Bigarren usunez eskola onan euskerari buruz sortzen zait. Klase guztiak erderaz dituzte. Amar erakaste datozte txandak. Batek bakarrik euskeraz argibratzen dizkie gaik. Mutilla oiek euskaldunak dira ta errexago egiten zale euskeraz. Ez dira erderaz ikastera bakarrik etori ba serreriko gaik ikastera baizik. Ori duan zergatik etzala bi ikuntzen egiten? Euskaldun mutillen mentalidadea ondo ulertze ko euskaldun erakasteak bear dituzte. Nola leike Erriberako zuzendaria jarri Leitza? Gainera euskal mutill oie ez die banatzen Nafarroko Diputazioak argitaratzen duan Printzipe de Biano aldizkaria. Artzen dituzte etxe ortan banatu ez. Nola leike orri ta 1970'ko egurratzen 54 urtekin il egin zaigu. Leitzaoko etorkizuna be r biza kosta zaito. Jator jokatzen ez da errexa gizeate onan.

Orain AMAZABAL patronatu Nafarroko diputazioak artu du bere gain.

Nere iritziz ezaldu ditut Leizadunen gauza ederretenakoa ta ba daude ugari. Baina arkitzen ditut usune batzuek ezin ditunak bildu. Lenego kezka ur-bainismoari buruz jaltzen zait.

Orain AMAZABAL patronatu Nafarroko diputazioak artu du bere gain.

Etorkezunari Leitzaoko erriak pozik begiratu dezaioko. Ba ditut mendi zabalak, baso galantak, lantegi berriak, ikastetxe ederrak, euskal giro jatorra... orain Mandoegi mendi aldean URANIO ere dala koan dituen.

LATXAGA

AXULAR SARIA

«NERI AITEK KONTATUE»

Nere herrien bada toki bat batez ere urriko ilebetan agoz-ago ibiltzen dena izilarren artian, ta da San Blas. Uso denboran egunero egiten da goizeko zazpitan uso etxolan sortia, eta hortako beti igaten da guarda o zaindari bat, hoietako bat bada (nere aitek ez odat erran nai izen nor den) uso pasa den egunian ez omen da beñere etxera gaten usoiok gabe. Egun batez egin omen zuten sortia beti bezala eta sartu omen zen Tabernario oyan zikora eta belaxe arputu omen zuten bago abar tartian uso bat franko usaindu ta sartu omen zuten sakellan. Orduko atuu omen ziren izilariek zipitzi zampa tiroka. Gabeak etxoletan Elizondoko izilari batek omen zituen iru edo lau uso hilek; poliki poliki sartzen da gure gizona bere usoiakin etolan eta galdetzen dio:

—Ze badago aro polito?
—Ba konten naiz lau bota tut eta nik uste ez dagon ain gaizki.

—Ez ez majo da, ez dire egunero lau uso hitzen. Berriz ere eldu zaitzu bertze parrasta bat.

—Non? —galdetzen dio izilariek.
—Ara hantxe beitiko zulu hartan.

Gure gizona yartzen da bi begiek suten harek erraneko tokire, ta hartan «Tak» utzen du uso ustel here etxola zolan ta hartzen dio hil berrietatik bat, eta lekutzen da handik.

Iunabarrian gaten omen da izilarie bere etxera ta «ofio» «ofio» erratan omen dio bere andria.

—Arroyoik ezpada ez duzu gaur errain ez dutela yarete hartzen.

—Nola battere zerbait karri biar, ia kusi.

Hasten omen da deskartzelatik usiak atratzen. Ajakaka hasten da andrea erranez:

—Banuen beldurre bai etzintuola denak zuk hil.
—Bayetz nik bota tut denak.

Bai? nik ez dut beñere kusi usoiok airian arrekin.

—Arrekin?

Gure gizona gelditu omen zen ago bete ur otzakiz ezin pentsatu nola izen zaitelen hure.

Guarda ere allatu omen zen etxera ta diponain maunkan muturretik lotue omen zakarran truketutako uso hurre; atra maunketik ta «zampa» botatzen du sukeldeko mayan gafera ta hasten da ofetakoak kentzen. Katu zar bat tian «trau» hartzen du atxikian ta han daye eskalerek omen zagon bi begiek diridiretan usuari beire. Holako habetiki usua errestan, Gure gizona zango bat oin utsik gibelatik uyuke:

—Zapi zapi!, katu madarikatue hoi duk in daten lana katu zar horrek, urdia!

Baño harek kasu guti inik otordu ederra inen zuen. Gure aitek erratan dakun bezala: Horra hemen ikasgai ederra, alde batetik ez dela beñere fiutu behar bertzen solas ederraikin, ta bertze aldetik gaizki dabilenak ez dutela beñere ongi akitzen.

Orain osanun ederraikin bizi omen dire naiz izilarie eta zaindaria ere. Urte aunitzez bizi daitezila.

MARI KONTEI AGERRE ALMANDOZ, 13 urte.

KONTU KONTARI ERROMAKO ZOBIA

Euskalerriko esatera zaharretan aipatua da Erromako zubia. Udaberriaren Erromako zubian jotzen omen lehentziko aitzid kukuak, Baina, zer da euskaldunen Erromako zubia? Askok uste dute ortzadar, erderazko «Arco Iris» izango zela gure aurrekoen Erromako zubia.

Halakorik gabe, Erroman zubi asko da eta burunbati gertatua kondatu nahi nuke. Martin Matxo izeneko gizon bati bere emaztea hil zitzaion eta, bere dolumina ondu orduko beste emakume batez gustatzen hasia kontatzen zen. Lehenbiziko andrearen alpora izan behar zuen.

Denbora joan eta denbora etorri, biak elkarrekin agertzeko lotsa ere bota ta, ezkontzera abiatu ziren.

Garai hartan era hortako ezkontzak Aita Sanduaren baimena behar izaten omen zuten eta Erromara dijoa gizona Berak uste baino irruitiago gertatu zitzaion Aita Sanduaren uria. Behin hasi eta behin esa, inungo emakumeengatik ez zuela berriz bide horrenik hartuko esan omen zuen.

Sartu Erroma haundian, eta zubián pasatzean bere herriko emakume batekin topo egin zuen; «sasi guzien gaitetik eta laino guzien azpitik joandako andrea».

—Zer, gizon sorgiñik bai alda? Baldin ni bizi naizena denboran nun ikusi nauden esaten baduk ederi pautuko duk...

Bildur zitoen aldeko guztiak sorgin hari «eta ez zuen gizonak sekula santan ezere esan, Gero sorgina hil geroan jakindu ziren gauzak.

Sagi

EUSKAL IZENAK USOA

Eibartik datorrit oraiakoren euskal izen baten eragotpena dela ta, gai egokia. «Hemen, Eibarren, —esaten dit adiskide batek— Usua, Usua edo Usua jartzen uztan du. Ujué «Jin behar omen du». Eibarko juzgado euskal lehen istilluan Nafarroa jo izan du orai arta. Geuk ere beren baino gehiagotan erantun dugu. Izan hontaz ez digi ezer galdetu: «erregistruko emakume nafarra omen da eta berak dionez, horko istoria bestek baino hobeto ezgutzen du».

Istoria ezagutuko, behar bada, baina euskal hizkuntza gaureratu omen gutxi dakiela adierazten du. Esan bezala, oraiak abots gogorak berria dela Euskalerrian. Pafarroko liburu eta larru-idazki zaharretan arkitu lezakele daketa osoreen soka. Bada ez bada, hona hemen nun ikusi dezaken:

Uxoa, Ciervide, «El Romance navarro antiguo» (Fontes Linguae Vasconum, n.º 6; pag. 291).

Usua, L. Michelena, «Notas lingüísticas a Colección Diplomática de Irache» (Fontes L. V., n.º 1; pag. 47). Y García Larraguta t. II; pag. 115.

Uxua. Archivo Histórico Nacional, Tudela, año 1149. Paper zahar asko aipatuko giniuzke. Hauek malleko izen dugu. Edo bestela datorrela berak hain ongi ezagutzen duen Nafarroa eta erakustuko dizkiogu.

Nola idatzi? Batzuk Uxue idazten dute; beste batzuk Usue. Usua ere oso sarturik dago. Eta oso sarturik dagoa esaten oraiak izendegiaz mintzo naiz. Sarturik urrian batzuen izen Iruen María Usua Saenz Lazcano. (Ikus urriaren 14.º eko DIARIO DE NAVARRA). Aspaldiko Uxue bat ere ezagutzen dugu Iruen bertan.

Nere uestez bai Usua eta Usue jatorrak dira, eta berdin Usua ere. Lehenbizikoa aukeratzetan dutenak, oraiak Ujué horren kutsua hobeki agertzegatik egin ohi dute Usua, berriz, gaurkotasan gehiagorekin ikusten dute beste batzuk; eta berdin zaharra dela ikasi dugu gurego. Hartu bezela, beraz, bakoitzak gogo duen bezala; eta esan ere bai. Baina, mesedez, utzi dezagun Ujué euskal kutsua galdu dutenentzat.

SAGI

(Euskal «Príncipe de Viana» aldizkarietik hartua)

ALFABETATZE-batzarrea

Arrasaten (II)

Mondragoeko bilkura ongi joan zen, gazte multzo ederra bilduz; Talde guztien ordezkariak zeuden, eta salbu bat edo beste, gaineratikoe euskalazindak autatu textoa segitzen. Bilkuran, Euskalazindaren ordezkariak, ikasbide horiek aipatu zituen, bai eta Klasetan usatu ditazken textoa ere.

Textoa, autore zahar eta berrietatik autatu dira; autore zaharrak diralako, euskeria eta berboa jatorrenik ibiltzen dituztenak, akats bat edo beste gora behera. Autore modernoen zatiak ere autatu ziran, gainera aldetik intragarri diralako. Autatez hontan, gaia baino gelago, izkuntza garbia kontuan artu da, euskeria jatorra irakurtzen ikasteko baitira xoliki. Baina Bildumetan ezdira denak berdin; berboa ongi dakiten autoreak autatu behar.

Ez dago zer esanik, ortografia bateratasaren aldera abiatu behar bada ere beti, ortografia zaharra ere onartu beharra dela (modernizatua), autore jator eredu askoen textoa, hartan izkiriak dauzelako; eta ezgara eroak, ditugun autore on guttiak, leiotik botatzeko.

Bizkaieuskalkioko zaharren artean, hauek dira autore autatuak; geienen zatiak, K. Etxenagusia-ren Lorategian daudenak,

J. A. MOGEL (Peru Abarka) — Fr. Bartolomeo Santa Teresa (K. Etxenagusian) — ASIBARRO (Id.) —

ABELETXE (Z. Argian agertu artikulo bat edo beste) — M. Zarateñ «Bizkaia idazien Lorategian» — X. KINTANA-K Z. Argian izkiriartutako, Zoologiaz artikuluaren bat. — Gipuzt-euskalkian: zaharren artean; KARDABERAZ (K. Etxenagusian) — J. B. AGUIRRE (Id.) — LARDIZABAL (Id.) — G. ARRUE (Id.) — Mendiburu.

Modernoen artean: Txomin AGIRRE (K. Etxenagusian) — ORIXE (Id.) — «Aramajo tik ere igesi» — BARANDIARAN-en Ipuñak (Id.) — Azkeneko mairuk — Muskia-ko jentilla — Patxi errementaria — Villasantia — X. LEITE (Z. Argian) — S. GARMENDIA — Lurñaren Kondairak zati bat — M. Lekuñaren GERO-AITZIN solasa — Nafar-lapurterrez: AXULAR (Gero) (K. Etxenagusian) — Ioanes J. Etxeberria (—Lafitte-n Euskaldunen LORETEGIA—liburuan) — LARREKO—(Eskualdun biotzuna Mexico-n) — MANEZAUNDI—(Kotz arraintzaria (K. Etxenagusian). — Euskalki hontakoak, asietako zailak dirala uste dugu.

Aipatu autore horietatik, ikastaro bakoitzeko, bakar baten artikulo bat edo bi ikertzea naiko da, denbora batentzat. Horietatik ateratzea ezta komeni, zehazki ikertu diralako denak.

Arrasateko Bilkuran, aipatu Talde geinako buru diranak agurtu genituen, ikasbideeri buruz, eztabaia batzu sortu ziran, baina ongi amaitu zen Biltzarra. Uste dugu, ondorio onik izanen duela.

A. Apat Etxebarne